

**2008ko ABENDUAREN 11an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2008ko abenduaren 11an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 19.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

Bere ezin etorria azaltzen dute: Iñigo Aginalde Lertxundi
Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
 - 2008ko azaroaren 6an ospatutako ohiko bilkura.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Pello-Errota ikastetxearen 2006-2007 ikasturteko kitapena onestu, hala bada.**
4. **Irabazi xederik gabeko elkarteei dirulaguntzak.**
5. **Fakturak eta ordainketak.**
6. **Beste batzuk.**
7. **Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2008 urteko azaroaren 6ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

18/2008 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 18koa, 2008ko azaroaren 10eko dataz aurkeztutako 2008/01 zbk. duen faktura zerrenda onestea ebazten duena.

19/2008 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 27koa, Larraulgo Udalak kutxan duen 0000089276 kontu korrontetik 1.200 eurotako diru kopurua ateratzeko baimena ematea ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA
PELLO-ERROTA IKASTETXEAREN 2006-2007 IKASTURTEKO KITAPENA ONESTU, HALA BADA

Ikusirik Asteasuko Udalak aurkeztu duela Pello-Errota ikastetxearen 2006-2007 ikasturteko mantenimendu eta inbertsio gastuei dagokion kitapena, guztira Larraulgo Udalak ordaindu behar duena bertara joaten diren Larraulgo haurren kopuruaren arabera 8.850,28 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Asteasuko Udalak aurkezturiko Pello-Errota ikastetxearen 2006-2007 ikasturteko mantenimendu eta inbertsio gastuei dagokion kitapena onestu, bere zenbatekoa 8.850,28 euro direlarik. Diru kopuru honen ordainketa burutu dezan agindua emanez.

BIGARRENA: 8.850,28 eurotako gastua onestea.

LAUGARREN PUNTUA
IRABAZI XEDERIK GABEKO ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK

Ikusirik 2008 urtean zehar irabazi asmorik gabeko hainbat erakundek aurkezturiko dirulaguntza eskaerak.

Ikusirik 2008 ekitaldirako udal aurrekontuan jasotako aurreikuspenak.

Ikusirik Larraulgo Udalak ez duela ordenantzarik onartuta irabaxi xederik gabeko erakundeei dirulaguntzak esleitzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2008 urtean zehar irabazi asmorik gabeko hainbat erakundek aurkezturiko dirulaguntza eskaerak ez onartzea.

BOSTGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

GRAFICAS SORTU	151,43
IZFE	374,91
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	51,81
TUBOS UROLA	289,37
LASURTEGUI ATXEKI	356,11
BABESA SUZAI	132,18
FONGUI	189,01
IHOBE	300,00
BERRI LANTEGIA	54,42
SAINT-GOBAIN	49,95
VILLABONAKO UDALA	11,24
KIROLZER	102,50
ARGITU ASESORES	126,21
SUMINISTROS ELECTRICOS MEGA	134,26
MANPEL	84,91
IBERDROLA	31,73
IBERDROLA	109,11
IBERDROLA	203,65
IBERDROLA	184,17
IBERDROLA	102,76
IBERDROLA	594,01
IBERDROLA	314,38
IBERDROLA	28,72
IBERDROLA	221,04
IBERDROLA	188,87
EUSKALTEL	212,54
REPSOLGAS	25,01
REPSOLGAS	181,68

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **4.805,98** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

SEIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

6.1. LANDAGIPUZKOA 32 PROGRAMAN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIETAN GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK DIRUZ LAGUNDUTAKO AZPIEGITURA BALIOANIZTUNETARAKO INBERTSIOAK AUKERATU ETA GAUZATZEKO DIRU LAGUNTZEN 2008KO DEIALDIA

Ikusirik 2008ko abenduaren 2an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako azpiegitura balioaniztunetarako inbertsioak aukeratu eta gauzatzeko diru laguntzen 2008ko deialdia.

Ikusirik aipaturiko deialdiaren xedea dela EUSTAT en datu ofizialen arabera 2006ko abenduaren 31n 1.000 biztanle baino gutxiago zituzten eta Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako dituen azpiegitura balioaniztunetarako inbertsioak hautatzeko eta gauzatzeko prozedura arautzea.

Ikusirik Landagipuzkoa 32 programan Larraulgo herria beste batzuen artean sartuta dagoela

Ikusirik Larraulgo Udalak beharrezkoa ikusten duela Haur parke berri bat egitea.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulen haur parke berri bat egiteko lanak, Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako azpiegitura balioaniztunetarako inbertsioak aukeratu eta gauzatzeko diru laguntzen 2008ko deialdia jarraituz diru laguntza eskaera egitea.

BIGARRENA: Larraulen Haur parke berri bat egiteko aurrekontua 73.284,27 (BEZ barne) eurotakoa da.

6.2. LANDAGIPUZKOA 32 PROGRAMAN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIETAN GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK DIRUZ LAGUNDUTAKO AZPIEGITURA BALIOANIZTUNETARAKO INBERTSIOAK AUKERATU ETA GAUZATZEKO DIRU LAGUNTZEN 2008KO DEIALDIA

Ikusirik 2008ko abenduaren 2an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako azpiegitura balioaniztunetarako inbertsioak aukeratu eta gauzatzeko diru laguntzen 2008ko deialdia.

Ikusirik aipaturiko deialdiaren xedea dela EUSTAT en datu ofizialen arabera 2006ko abenduaren 31n 1.000 biztanle baino gutxiago zituzten eta Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagunduko dituen azpiegitura balioaniztunetarako inbertsioak hautatzeko eta gauzatzeko prozedura arautzea.

Ikusirik Landagipuzkoa 32 programan Larraulgo herria beste batzuen artean sartuta dagoela

Ikusirik Larraulgo Udalak beharrezkoa ikusten duela Udal pilotalekuaren konponketa lanak egitea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo udal pilotalekuaren konponketa lanak egiteko , Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako azpiegitura balioaniztunetarako inbertsioak aukeratu eta gauzatzeko diru laguntzen 2008ko deialdia jarraituz diru laguntza eskaera egitea.

BIGARRENA: Larraulgo udal pilotalekuaren konponketa lanak egiteko aurrekontua 68.033,15 (BEZ barne) eurotakoa da.

6.3. LANDAGIPUZKOA 32 PROGRAMAN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIETAN GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK DIRUZ LAGUNDUTAKO AZPIEGITURA

BALIOANIZTUNETARAKO INBERTSIOAK AUKERATU ETA GAUZATZEKO DIRU LAGUNTZEN 2008KO DEIALDIA

Ikusirik 2008ko abenduaren 2an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako azpiegitura balioaniztunetarako inbertsioak aukeratu eta gauzatzeko diru laguntzen 2008ko deialdia.

Ikusirik aipaturiko deialdiaren xedea dela EUSTAT en datu ofizialen arabera 2006ko abenduaren 31n 1.000 biztanle baino gutxiago zituzten eta Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagunduko dituen azpiegitura balioaniztunetarako inbertsioak hautatzeko eta gauzatzeko prozedura arautzea.

Ikusirik Landagipuzkoa 32 programan Larraulgo herria beste batzuen artean sartuta dagoela

Ikusirik Larraulgo Udalak beharrezkoa ikusten duela Erabilera anitzeko eraikin bat egitea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo herrian erabilera anitzeko eraikin bat egiteko lanak, Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako azpiegitura balioaniztunetarako inbertsioak aukeratu eta gauzatzeko diru laguntzen 2008ko deialdia jarraituz diru laguntza eskaera egitea.

BIGARRENA: Larraulen erabilera anitzeko eraikin bat egiteko lanen aurrekontua 656.610,84 (BEZ barne) eurotakoa da.

ZAZPIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ondoren aipatzen den mozioa aurkezten da:

***“Eskubideak bermatzeko, konponbidea sustatzeko
Aiztondo bailara giza eskubide guztien alde !!!! Euskal Herrira***

700 euskal herritartik gora daude kartzelan, “terrorismoaren aurkako borroka” deitutakoak eragindako salbuespen arauen ezarpena dela eta. Eta espetxetako egoera okertzen ari da.

Presoen gehiengo izugarria (% 98,5) Euskal Herritik kanpoko espetxeetan dago, Espainiako eta Frantziako gobernuek ezartzen duten sakabanaketa politikaren ondorio.

Sakabanaketa euren legearen eta presondegiko oinarrizko tratamendu ororen aurka doa. Preso daudenekiko zein euren senide eta inguru sozial eta politikoarekiko mendekuan eta xantaian oinarritutako erabaki politikoetan onarritzen da.

Sakabanaketak preso dauden lagunen bizi baldintzak gogortzen ditu, eta zigorra senide eta inguruko pertsoneri zabaltzen die. Izan ere, preso dagoen lagunarekin denbora labur batez egon ahal izateko izugarritzko esfortzua suposatzen du, bai denbora aldetik, bai espetxeetara joateko egin behar diren bidai luzeek eskatzen duten arriskuen aldetik, eta, baita ere horrek guztiak suposatzen duen dirutzagatik. Honako datu hauek esandakoa berresten dute:

- *Presoak Euskal Herritik 724 kilometrora daude, batez beste.*
- *Bisitak mantentzeko urteroko batazbestekoa 13.812 eurokoa da presoen senideentzako.*
- *Dagoeneko 16 lagun dira presoak bisitatzeko desplazamenduetan hildakoak.*
- *2007an esaterako euskal presoen senideek 17 instripu izan zituzten, bisitara zihoazela.*

Egungo Espainiako eta Frantziako gobernuek kartzela eta zigor arloetan aurreko gobernuen ildo bera daramatela salatu beharra dago: zigorraren handitzea, sakabanaketa, isolamendua, komunikazioen murrizketa, gaixo dauden presoen eskubideen urraketa, presoen hezkuntza eskubiderako eta euskararen erabilerarako trabak jartzea, espetxe zigorraren iraupenaren murrizketarako aukeren ezabaketa, legeak onartutako mesedeen aplikazioaren murrizketa kartzelatik ateratzea eragozteko asmoarekin... Neurri horiek, batetik, espetxeetako bizi baldintzak gogortzea bilatzen dute, eta, bestetik, preso dauden lagunek espetxean igaro behar duten denbora ahalik eta gehien luzatzea. Bizi arteko zigorraren ezarpena. Frantziako Estatuan legez indarrean den bezala Espainiako ere legedi erreforma beharrezkoak bideratu ditu euskal presoei aplikatzeko.

Erabaki eta politika hauen guztien larritasunaren aurrean agiri hau sinatzen dugunok Espainiako eta Frantziako gobernuari honako hau exijitzen diegu:

- ***Tratu duin eta begirunezkoa jasotzeko Eskubidea:***

- *Tortura eta tratu krudelik ez.*
- *Ez isolamendurik, ez jipoirik.*
- *Beren nazio zein kultur identitaterakiko begirunea.*

- ***Osasun Eskubidea:***
 - *Osasun zainketa duina.*
 - *Konfiantzako sendagileek ere bisitatuak izateko aukera.*

- ***Komunikazio Eskubidea:***
 - *Ez interbentziorik, ez murriztapenik.*
 - *Euskaraz ere komunikatzeko askatasuna.*

- ***Hizkuntza Eskubidea:***
 - *Euskaldun legez, beren garapen integrala euskaraz burutzeko askatasuna.*

- ***Hezkuntza eskubidea:***
 - *Ikasteko oztoporik ez.*
 - *Ikasketak euskaraz ere burutu ahal izateko aukera.*

- ***Ama eta aitatasuna eskubidea:***
 - *Duintasun osoz presoan ama izateko eskubidea.*
 - *Aitarekin komunikazioei trabarik ez.*
 - *Kartzela barruan umeen bizitza kalitatearen errespetua.*

- ***Askatasunerako eskubidea:***

Baldintzapeko askatasuna aplikatzea zigorraren ¾ edota 2/3 bete dituzten presoek (epaituak izan ziren kode Penalaren arabera).

Legez dagozkien erredentzioak aplikatzea inolako diskriminaziorik gabe.

Larriki gaixo direnen berehalako kaleratzea.

- ***Euskal Preso Politikoen Kolektibo gisa, Euskal Herrian eta elkarrekin bizitzeko Eskubidea:***
 - *Kolektiboak izendaturiko Mintzakidetzaren aitortza.*
 - *Kolektibo gisa gainerako eragileekin harremanak izateko askatasuna.*
 - *Euskal gizartean eztabaida eta erabaki guneetan parte hartzeko aukera eta askatasuna .*

- *Gure egiten dugu, beste behin ere, “ EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA” oihua.*

*Honegatik guztiagatik, **abenduaren 31ean**, arratsaldeko 19:00 etatik aurrera Villabonako Errebote plazan hasi eta Zizurkilgo Joxe Arregi*

*plazan amaituta, **MANIFESTAZIO ISIL** baterako deia egiten dugu. Bertara, herritar guztiak deitzen ditugularik.*

Ondoren mozioa bozkatu egiten da ondorengo emaitzarekin:

-Aldeko botuak: 2 (Mujika eta Barandiaran)

-Kontrako botuak: 1 (Mendiola)

-Abstentzioak: 0

Bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, gehiengo soilarekin aipaturiko mozioa onesten du.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA